

---

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Special Issue – Mugatxoan  
Donostia. Urriak 2012

---

*Una voz sin cuerpo, hacia el amor* [Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz] da proposatzen dizuegun programa, urriaren 4tik 11ra Donostian izango dena. Programa hau Special Issue [Edizio Berezia] europako zentroekin sarean garatzen den programaren barne dago, Gaurko *performance*ak nola *argitaratzen* du diskurtsoa? Galderan ohinarritua. Sare hau Les Laboratoires d'Aubervilliers, In-presentable (Madrid), Station (Belgrad), Hybris Konstproduktion (Stockholm), BIS (Istanbul) eta Mugatxoan (Donostia) egiturek osatzen dute, zeintako artisten helburua den testuinguru egokiak ekoiztea asma-bidean dagoen arte baterako.

*Emisión 1. Una voz sin cuerpo, hacia el amor*, performancez, hitzaldiz, solasaldiz eta esku-hartzen hornitutako irratsaioa da, aldiberean gertatuko dena STM-ko Laborategian eta irrati libre batean. Formatu aldagarria izango duen saioa, honako gonbidatuok aktibatutakoa: Cristina Blanco, Manuel Cirauqui, Peio Aguirre, Alice Chauchat, Juan Domínguez eta Itziar Okariz.

Irrati saioaren ideia sortu zen, azken hamar urteotan Mugatxoan-etik pasa diren artistei egindako elkarrizketen jarraipen modura. Elkarrizketetan azaldu nahi ziren duela hamar urte lanerako baliatzen zituzten lekuak, jarrera eta autonomia, eta gaur egun dituztenak. Berehala sortzen da topaketa baten hiztegia eta bakoitzaren egoerak eta lan prozesuak irudikatzeko eta adierazteko erabilitako terminologiaren inguruko definizioa eta eztabaida.

Horrek bultzatu gintuen gure arreta eta asmoa entzunezko bitartekoan jartzera, bere inmaterialtasunagatik; aldi berean, pentsatu genuen argitalpen lerro bat zabaltzea prozesu artistiko bat idatzira «itzultzeko» arazoa lantzeko.

*Cuaderno 1, Una voz sin cuerpo, hacia el amor*, lehen ere ikusitako lan prozesuen elementuak eta zatiak berpizten ditu lau kolaborazio berrirekin: Amaia Urraren *Frondo-so Matorral*, Alice Chauchaten *The Love Piece*, Itziar Okarizen *Contrarywise* eta Peio Aguirrereren *Love as production: a short theory of the economy of art*. Artista horiek era ezberdinetan esku hartuko dute hiru egun hauetan eta argitalpenean egindako elkarlanaren partaide egingo gaituzte.

---

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Special Issue – Mugatxoan

---

Urriak 4, 18:00 - 21:00

---

*Una voz sin cuerpo, hacia el amor.* Blanca Calvo, Ion Munduate  
*Corresponsal en el exterior, Roma – París.* Amaia Urrea  
*The Love Piece.* Alice Chauchat  
*ciencia\_ficción.* Cristina Blanco

Urriak 5, 18:00 - 21:00

---

*El amor como producción.* Peio Aguirre  
*Fronroso matorral.* Amaia Urrea  
 $\pi$ . Itziar Okariz  
*Dirty Room: episodio 1.* Juan Domínguez

Urriak 6, 18:00 - 21:00

---

*Maniobras espectrales en la radio.* Manuel Cirauqui  
*Contrarywise.* Itziar Okariz  
*Dirty Room: episodio 2.* Juan Domínguez

San Telmo Museoa

---

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Urriak 4, 18:00–21:00

---

*Una voz sin cuerpo, hacia el amor*  
Blanca Calvo, Ion Munduate

*The Love Piece*  
Alice Chauchat

1. *emanaldia*, jendearekin partekatutako lan esparru bezala aurkezten da, eta gonbidatutako artisten esku hartzeen helburua izango da emanaldiari izena ematen dion gaiaren inguruko hurbilketa ezberdinak sortzea. Koordenatu berriak marraztea maitasunaren ideiaaren inguruko hurbilketa ezberdinak bilatu nahian, betiere maitasuna prozesu artistiko bat gauzatzeko kontzeptu gisa ulertuta. Eta hortxe kokatzen ditugu hizkuntzaren bitartez jaso ezin diren egoera ezberdinei buruz sortzen zaizkigun zenbait galdera. Alabaina, hitzez adierazi ezin badira ere, egoera horien existentzia eta esperientzia partekatu ditzakegu, beste euskarri batzuetan azaltzen eta gauzatzen baitira. Maitasuna hautematea zeinu bezala. Hizkuntza zein unera arte da errealaren iradokizun bat, beste ezer baino gehiago? Hizkuntza bilakatu ote dezakegu bere hitzarekin oraindik topo egin ez duen zerbaiten, errealitate txiki baten, zeinu?

Amaia Urrea gure atzerriko berriemaiarekin konektatuko dugu eta koordenatu errealetan eta irrealen kokatuko gaitu, maitasunaren hiri izan daitezkeen Amor, Erroma eta abarren bila. Parisera ere bidaliko dugu Frantziako *Libération* aldizkariak antolatzen dituen *Maitasuna filosofiako lau irakasgaietan* saioretako informazioa jasotzeko.

Zein harreman ezarri nahi duzu publikoaren eta interpretarien artean, publikoaren eta obraren artean? Zer gertatzen da emozioak sorraraztearekin? Zer gertatzen da jendea hunkitzearekin? Zein fikzioa errealitate partekatu bihurtzeko orduan, ikuslearen aldetik behar den inplikazio-motaren ingurukoa, alegia?

Harremanen arteko interesaren, estimuen ekoizpenaren eta jokoaren sustapenetik sortzen da zuzenean *The Love Piece* [*Amodioaren pieza*] eszenaratzea.

*ciencia\_ficción*  
Cristina Blanco

Musika: Cristina Blanco eta Rubén Ramos  
Spiriten bideoaren itzulpena: Quim Pujol

Laguntzaileak:  
Iberescena, Espacios cómodos 010,  
La porta, Al-kantara, Espacio práctico,  
El Local, La Casa Encendida, Aula de danza  
Estrella Casero, el local de la calle Azucenas

Mundu kuantikoan esaten da, zerbait behatu arte, egoera posible guztiak aldi berean gertatzen ari direla. Norbaitek behatzen duen arte. Orduan, naturak aukera ezberdinetako bat hautatzen du. Hala, *ciencia\_ficción* [*zientzia fikzioa*] lanean, oraingoz, dena aldi berean gertatzen da. Gutxienez, hori ikusi eta entzuzera sartzen zaren arte.

## Biografiak

Amaia Urra. Donostia 1974. Arte Ederretan lizentziatua, eskultura-espezialitatean, 1998, Euskal Herriko Unibertsitatea. Aldi berean dantza garaikide eskoletara joan zen. Juan Domínguez, Frederic Seguette, Ion Munduate, Jérôme Bel, Olga Mesa eta Xavier Le Roy bezalako artista eta koreografoentzat egin du lan, eta horiekin batera ere lan egin du, beren lanak interesgarriak iruditzen baitzaizkio. 1999an eta 2000. urtean Mugatxoan programan parte hartu ondoren, bere lana sortzen hasi zen: *Desayuno con diamantes* eta *No GoaL* bideoak sortu zituen lehenbizi, eta 2002. urtean bere lehen pieza estreinatu zuen *El Eclipse de A*. 2007-08an, Cristina Blanco, Cuqui Jerez eta Maria Jerezekin batera *The Neverstarting Story* proiektua garatu zuen. 2009. urtean, *Time-Wasters* bideoa egin zuen, eta 2010. urtean, *La Cosa* izeneko performacea aurkeztu zuen Europako zenbait jaialditan. 2012. urtean *Desaparezco* aurkeztu zuen, Emisión 0, Mugatxoan esparruaren barne, Donostiako San Telmo Museoan, eta *Renuncio* lana aurkeztu zuen Madrilgo La Casa Encendidan.

Alice Chauchat. 1977 Saint Etienne (Fr). Berlin eta Parisen lan egiten du performer eta irakasle/hitzlari bezala. C.N.S.M. eta P.A.R.T.S. eko ikasle izana. Kolektiboki lan egiten du orokorrean, egitasmo koreografikoetan eta arte performatiboen barnean, jakinduria partekatu eta truke harremanen ekoizpenerako plataformetan. Gaur egun, Les Laboratoires d'Aubervilliers, Paris aldirietako ikerketa zentruko ko zuzendaria da.

Cristina Blanco. Arte dramatiko ikasketak egin zituen Madrilan. 2003az geroztik, bere eszena-piezak sortzen ditu, besteak beste *cUDRADO\_fLECHA\_pERSONA qUE cORRE* (2004), *TELETRANSPORTATION* (2010) eta *ciencia\_ficción* (2010/2012). Beste performace, antzeki eta zinema-sortzaileren lanetan antzezle ere bada, besteak beste, Amaia Urraren, Cuqui Jerez, María Jerez, Juan Domínguez, Luis Úrculo, Xavier le Royren eta Roser Aguilarren lanetan. The Elements musika-taldeko liderra da, eta el Club zein las Calaveras de Cher kolektibo artistikoko kidea da. [www.tea-tron.com/cristinablanca](http://www.tea-tron.com/cristinablanca)

---

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Urriak 5, 18:00–21:00

---

*El amor como producción*  
Peio Aguirre

*JLG/JLG Autoportrait de décembre* (1995) lanaren bukaeran hau dio Godardek, ia ondorio gisa: «Maitatzen dudala esan dut, horra hor nire promesa. Gaur egun, nire burua sakrifikatu behar dut, maitasun hitzak zentzu bat izan dezan. Lurrean maitasuna zabaldu dadin». Adierazpen horrek galdera hau eginarazten digu, modura: zer motako sortze-forma saiatu daiteke, maitasuna ekoizpen gisa eman dadin? Bere irrati saioan honen inguruan ikertzen du eta ondorengo egunetan emango duen tailerreko oinarriak aurreratzen dizkigu.

$\pi$   
Itziar Okariz

*Performance*  
Iraupen aldakorra

Bi pertsonak, bata bestearen ondoan eta publikoaren aurrean,  $\pi$  zenbakiaren zifra-sekuentzia kopuru mugatu batean errepikatzen dute, esaterako, lehenbiziko hamar mila zifrak. *Performance*aren koru-exekuzioak lengoia-ekoizpenaren ezaugarri fisikoa, bere haragitzea azpimarratzen du. Zenbakiak ahotsaren bitartez gauzatzen dira, tonu, genero eta identitate jakin bat hartuz.

Premisaren keinu ezinezkoa, zenbaki infinituaren errezitalak, giza naturaren

mugakotasuna eta bere betikotasunahia agerian jartzen du.

*Dirty Room. Episodio 1*  
Juan Domínguez

Juan Dominguezek sortutako proiektua da *Dirty Room*, María Jerez eta Sara Manenteren partaidetzarekin, eta Alice Chauchaten laguntzarekin

Ahotsa: María Jerez  
Kolaborazioa: Las colombina's

Iragan abuztuan, *Clean Room* [*Gela garbia*] seriearen lehen denboraldia estreinatu nuen, *performance*aren parametroak aldatzeko saiakera bat da, horretarako telebistako telesailetan erabiltzen diren prozedurak erabiliz: narrazio-gaien denbora-garapena luzatuz, ikusleen artean leialtasuna sortuz, aldi behin kapitulu bat emanez; errepikapenen eta elementu berrien artean tentsioa sortuz. Hemen, Donostian, *Dirty Room* [*Gela zikina*] bi kapituluko irrati-programa aurkeztuko dut. Zure irudimena, zure intimitatea, zure eskuzabaltasuna, zure probokazioa, zure denbora, zure gosea, zure desioa, zure gauzak, zure gorputza, zure erabakiak, bitan banatzeko zure gaitasuna, zure begiratzeko modua, zure arintasuna, zure arreta.

## Biografiak

Peio Aguirre. Arte kritikaria, komisario independentea eta editorea. Donostian bizi eta lan egiten du. 2000. eta 2005. urteen artean, D.A.E. Donostiako Arte Ekinbideak kultur egiturako zuzendari-kide izan zen. Honako erakusketa hauen komisario izan da: *Imágenes del otro lado*, CAAM, Las Palmas Kanaria Handikoa (2007); *Arqueologías del futuro*, Rekalde Aretoa, Bilbo (2007); eta *Asier Mendizabal*, MACBA,artzelona (2008). Nazioarteko hainbat aldizkaritan, artikulua argitaratu ditu; besteak beste, *Afterall*, *A Prior Magazine*, *Flash Art*, *ExitExpress* eta *e-flux* aldizkarietan. Artista garaikideei buruzko testu monografiko ugari egin ditu. «Crítica y meta-comentario» izeneko bere blogean idatzi ohi du <http://peioaguirre.blogspot.com>

Itziar Okariz. Donostian jaioa 1965. urtean. New York eta Bilbo artean bizi da, eta bi hiri horien artean egiten du lan. Bere lanean, lengoiaren eta subjektu gisa definitzen gaituzten zeinu-ekoizpenaren araudiak zailtzen jartzen dituzten ekintza-ekoizpenak garatzen dira askotan. Banakako bere azken proiektuen artean, aipagarriak dira *Uno, uno, dos, uno*, Galería Carreras Múgica galerian (2012). *Irrintzi, repetición*, La casa Galería, México DF (2011). *How d'ye do?* izeneko *performancea*, "Ellas Crean"-en 6. edizioan, ARCO, Madril (2010). *Contrarywise, performancea*, Museo Picasso, Barcelona (2010). Bilboko Galería Carreras Múgica galeriako erakusketa (2009). *Ghost Box*, Bilboko Rekalde aretoan (2008). Curating the campus: *To Pee in Public and private Spaces*, The Singel aretoan, Amberesen (2007). *Talent*, Vita Kuben, Umea, Suedian (2007). *Climbing Buildings* «If I Can't Dance...» jaialdian, Utrecht (2007). Horrez gain, erakusketa kolektibo hauetan ere parte hartu du, besteak beste: *Genealogías Feministas en el Arte Español, 1960-2010*. MUSAC, León (2012). *re.act.feminism #2*, Montehermoso Kultura Zentroa, Gasteiz; Tallinna Kunstihoone in Tallinn, Estonia; Museet for Samtidskunst, Roskilde, Denmark; Galerija Miroslav Kraljevic, Zagreb, Croatia; Wyspa Institute of Art, Gdansk, Poland (2011-2012). *La Internacional Cuir*, bideo, eztabaida eta *performance*-zikloa, Museo Nacional de Arte Reina Sofia, Madril (2011). *I was a Male Yvonne de Carlo* MUSAC, León (2011). *Like a river that stops being a river or like a tree that is burning in the horizon without knowing it is burning* Temporary Gallery. Kolonia (2010). *Antes que todo* CA2M, Madril, 2010. *Chacun a son gout*, Guggenheim Bilbao Museoa (2007).

---

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Urriak 6, 18:00–21:00

---

*Maniobras Espectrales en la Radio*  
Manuel Cirauqui

*Dirty- Room. Episodio 2*  
Juan Domínguez

Mugatxoan 2012ko otsailean aurkeztu zuen *Tanatofonías* programaren ildotik, Manuel Cirauqui, *Maniobras Espectrales en la Radio* [Espekto maniobrak irratian], egun hauetan emango duen tailerrari buruz hitzegitera itzuli da oraingo honetan. Programa honen bidez irratia miaketa teorikoa eta praktikoa egitea proposatzen du, irratia subjektibotasunaren eta horren fantasmen topaleku gisa hartuta.

*Contrarywise*  
Itziar Okariz

*Performance*  
Iraupen aldakorra

Espazioan, *performer* bat, zutik, mikrofono batekin eta bozgorailu baten ondoan dago, publikoari begira. *Performerrak* “bai...”, “ez...”, “bai...”, “ez...”, “bai...”, “ez...” hitzak errepikatzen ditu etengabe, bere ahotsa bozgorailurantz bidaliz eta aldi berean publikoari interpelatuz. Bozgorailuak atzerapen pixka batekin erreproduzitzen du *performerraren* ahotsa, era horretan, bozgorailuak “bai” esaten duenean, *performerraren* ahotsak “ez” esango du aldi berean, edo alderantziz. *Performerrak* silaba bakarreko bi hitzak errepikatzen ditu, elkarrizketa bat bihurtu arte. Errepikapen hori zentzugabe eta komikoa da.

## Biografiak

Manuel Cirauqui idazlea eta erakusketa komisarioa da. Gaur egun, Curatorial Fellow da New Yorkeko Dia Art fundazioan. Saia-kera ugari egin ditu iratiari buruz, soinu arteari buruz eta musika esperimentalari buruz, eta *Bomb* (AEB), *Frieze* (Erresuma Batua) eta *20/27* (Frantzia) aldizkarietan idazten du.

Juan Domínguez dantzaria, koreografoa, eszena-zuzendaria eta programatzailea da. Madril eta Berlin artean bizi da, eta bi hiri horien artean egiten du lan. Juan Domínguezek lana egoeraren, aurkezpenaren, irudikapenaren eta testuinguru-sorreraren artean dago kokatuta. Antzoki-inguruneari buruzko galderetan ere oinarritzen da bere lana. Kode ezberdinak lotuz, fikzioaren eta errealitatearen arteko disoluzioa proposatzen dute bere lanek. Gaur egun, sentsibilitate ezberdinen arteko elkarguneak aztertzen ari da, sorkuntzaren beharra eta koreografiaren eragin eta ondorioen dokumentazioa nola gogortu daitezkeen, alegia. Bere lanak 2000. urtetik aurrera: *The Taste Is Mine* (2000). *Todos los buenos espías tienen mi edad* (2002). *The Application* (2005). *Seven Attempted Escapes From Silence*, opera, (2005). *Shichimi Togarashi* (2006). *Todos los buenos artistas de mi edad están muertos* (2007). *de la... a la...*, ikerketa-proiektua, (2007/08). *Don't even think about it* (2008). *Blue* (2009). *Clean Room*, pilotua (2010). *Ya llegan los personajes* (2011). *950, una habitación sin vistas* (2011). *Clean Room*, denboraldia (2012). *Dirty Room*, irratiko serie txikia (2012). Artista egoiliarra izan zen PODEWIL-en, Berlin-Alemania 2004-2005 bitarte. Eszena eta ikus-kulturaren praktika masterreko tutorea izan da (Práctica Escénica y Cultura Visual) (UAH/ARTEA) 2010. urtean. Eszena eta ikus-kulturaren praktika masterreko eszena-sorkuntza eta ikus-entzunezko bitartekoak ibilbideko zuzendaria izan da (UAH/ARTEA) 2011 eta 2012an. In-Presentable jaialdiko zuzendari artistikoa (La Casa Encendida/Madrid) 2003-2012. 2010az geroztik Living Room Festival jaialdiko diseinatzaile.-kidea da (Madrid/Berlín). Latitude hauetatik, lortu du.



---

Special Issue  
General Calendar 2012  
www.specialissue.eu

---

3-4 February, Istanbul, BIS  
*Choreographic Games*, workshop  
Rémy Héritier, Laurent Pichaud

20-22 June, Madrid. In-Presentable  
*Emissiones Cacatúa*, a daily morning radio performance  
Arantxa Martínez, Nilo Gallego

10-22 September, Paris. Laboratoires d'Aubervilliers  
*The Mountain of Aubervilliers*, daily publications  
Laurent Pichaud, Rémy Héritier

October, San Sebastian, Mugatxoan. San Telmo Museoa  
4-6 October: *Emission 1. A Disembodied Voice, Towards Love*  
5-7 October: *Maniobras Espectrales en la Radio*, workshop with Manuel Cirauqui  
8-11 October: *Auto-reflexividad/auto-consciencia: hacia el amor*, workshop with Peio Aguirre

15-27 October, Belgrad, Station  
*Choreography of attention*, laboratory

21-24 October, Istanbul, BIS  
*Artist's Dramaturgy/Criticism*, workshop with Jennifer Lacey

4-7 November, Istanbul, BIS  
*Choreographic Games*, public version  
Laurent Pichaud, Rémy Héritier

10-11 November, Istanbul, BIS  
*Field Method*, workshop with Michael O'Connor

12-16 November, Stockholm, Hybris Konstproduktion  
*The Public Office*  
A public office is a rent-free working place functioning structurally much like a public library

18 November, Istanbul, BIS  
*Text's Performance*  
Performance brochure text analysis and writing workshop  
Elyul Akinci, Ozlem Alkis

1. Emanaldia  
*Gorputzik gabeko ahotsa, maitasunerantz*  
Special Issue – Mugatxoan  
Urriak 4, 5 eta 6, 18:00etatik 21:00etara  
Sarrera doan. San Telmo Museoa

Saioaren gidariak:  
Ion Munduate y Blanca Calvo

Kanpoko berriemailea:  
Amaia Urria

Formatu aldagarria izango duen saioa, honako gonbidatuok aktibatutakoa:  
Cristina Blanco, Manuel Cirauqui, Peio Aguirre,  
Alice Chauchat, Juan Domínguez, Itziar Okariz

Soinua eta irrati-instalazioa:  
Audiolab

Diseinu grafikoa:  
Joaquín Gáñez

Artelekuko ekoizpen taldea eta talde teknikoa:  
Natalia Barbería, Maitane Otaegi, Daniel Artamendi

Special Issue – Mugatxoan  
Koprodukzioa



**eremuak**

Kolaborazioa

